

ALTZA PORRU!

2006ko uztaila / 21.zenbakia

EHTE Allemendi 1, 20800 ZARAUTZ · Tel.: 943 83 28 28
www.trikitixa.net / www.trikimailua.com



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea
L.G.: SS-418/01

INPERNUKO POZA, TRIKITIXAREN IV. JARDUNALDIAK

Laugarren urtez jarraian, **Inpernuko Poza Trikitixaren Jardunaldiak** izango dira Donostian, EHTEk antolatuta. Pixkanaka-pixkanaka, esperientzia berri moduan sortutakoa, indarra eta lekua hartzen ari da, trikitixaren munduan. Aurtengo jardunaldien **ardatza Elgeta** izango da. Hori dela eta, jardunaldi hauetan Elgetari buruzko hausnarketa eta ikerketa bideratuko da, eta, horretarako, garrantzitsua da gai honen inguruan lanean eta ikertzen jarraitzea. Era honetan, aurretik egindako lana osatuko da, eta Elgetaren bizitzako eta obrari buruzko datu berriak jasoko ditugu.

Koldo Izagirrek Elgetaren bizitza eta testuingurua ardatz hartuta emango du hitzaldia, eta Elgetaren musika-alderdiaz **Iker Goenaga** trikitilaria arituko da. Elgetaren jotzeko modua, tonalitate ezberdinak nola erabiltzen zituen, trikitixari egindako ekarriak, izango ditu mintzagai. Bere jarduna adibide xeheez josiko du. **Azken eguneko jaialdian**, Elgetan egin zen emankizuna errepikatzeke asmoa dago. **100 urte** dira Elgeta jaio zela, eta, hori ospatzeko, **Elgeta ardatz duen emankizuna** estreinatu zen Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, maiatzaren 20an. Emankizun horretarako testua Koldo Izagirrek egin du, eta antzezleak Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa dira. Bestalde, Elgetaren ikasle izandako Lajak joko du soinua, Landakandak panderoaz lagunduta. **Donostiako Udalarren areto nagusian** izango da emankizun hau, **irailaren 7an**, eta **Donostiako Euskal Jaietako egitarauaren baitan** kokatuko da. Gogoan izan behar dugu Elgeta Donostian eman zituela bere azken urteak. Donostiako Parte Zaharrean ibiltzen omen zen, eta bertan egin zion esku artean daukagun grabazio bakarra Pepe Andoainek. Hain justu, Donostiako Parte Zaharrean dagoen Bar Baserriren gainean, 1960. urtearen inguruan. Handik lau urtera hil zen, Donostiako Miserikordia Etxean. Azken finean, Koldo Mitxelenako aretoa txiki geratuko delakoan, gisa honetako emankizun bat jendaurrean aurkezteko, Donostiako Udaleko aretoa aproposagoa izango dela uste da.

Beraz, aurtengo jardunaldietan **Elgeta trikitilaria omenduko da**, eta Donostiako Udal Liburutegiaren Sotoa eta Udaletxeko aretoa beteko dira trikitixazalez. Irailaren 5ean eta 6an izango dira jardunaldiak, Donostiako Euskal Jaiekin batean. Irailaren 7an, Elgetari buruzko emankizun dotore horretaz gozatzeko aukera izango dugu.



Iñaki Zabaleta, Landakanda eta Laja, iazko jardunaldietako azken egunean



Primi Erostarbe eta Elgeta

SOINUA PAPEREAN BILDUMA: Gelatxo eta Elgeta abiapuntu

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak **Manuel Sodupe Gelatxo** eta **Jazinto Rivas Elgeta** trikitilarien partiturak biltzen dituzten bi liburu kaleratu ditu, garai bateko **trikiti errepertorioa berreskuratzea** helburu duen Soinua paperean bildumari hasiera emanez. Bi trikitilari handi hauen lanak solfeo bidezko partituretan argitaratu dira, beren grabazio bakanak jasotzen dituzten CDekin batera. Gisa honetan, trikitixa eskoletako partitura premia ase nahi da. Izan ere, tartean bilduma batzuk badiren arren, irakasle bakoitzak bereak egin behar izaten ditu. Azken finean, helburua errepertorio zaharra eta jotzeko estilo zaharrak biltzea, eta belaunaldi berrien esku jartzea da, ezkutuan zeuden altxorak bistaratzea.

Adolfo Jainagak pasatu ditu piezak grabazio zaharretatik pentagramara. Gelatxoren kasuan, musika ez ezik haren emazte **Juliana Esnaolak** kantatzen zituen koplak ere transkribatu ditu, **Jabier Kaltzakortaren** laguntzarekin. Jatorrizko grabazioak, berriz, **Eresbilek** digitalizatu ditu.



Manuel Sodupe Gelatxo

MANUEL SODUPE GELATXO (1888-1953)

Manuel Sodupe Zubizarreta Elgoibarren jaio zen, Gelatxo baserrian, eta handik datorkio goitizenaz ere. Baserritarra zen, eta **soinu-jotzaile profesionala**, hein berean. Gerra bitartean bera zen, Gipuzkoa aldean behintzat, soinu-jotzailerik sonatuena, eta Bizkaian ere leku askotan jotzen zuen. Panderoarekin bere **emazte Juliana Esnaolak** (1906-1974) laguntzen zion maizetik. Gelatxok garai hartan errepertorio zabala zuen, eta, sortzaile ez ezik, piezak moldatzen eta inprobisatzen ere dohain aparta behar zuen.

Hain zuzen ere, Manuel Sodupe *Gelatxok* **1920. hamarkadan** Donostian grabatutako **diskoak berreskuratuz** dira. Gelatxori eskainitako liburu-disko horren **hitzaurrea**, berriz, **Mielanjel Haranak** egin du. **Ekainaren 10ean, Elgoibarren, omendu** zuten Gelatxo, eta orduan egin zen **liburuaren aurkezpena** ere.

JAZINTO RIVAS ELGETA (1906-1964)

Jazinto Rivas inklusatik Elgetako Intxuzabal baserrira ekarria izan zen eta hortik datozkio bere bi ezizenak: Elgeta eta Intxuzabal. Bera izan zen **soinua irakasten hasi zen lehen trikitilari profesionala**. Baserriz baseri ibiltzen zen irakasle moduan. Gipuzkoan ez ezik, Bizkaian ere asko ibili zen irakasten. Berari **zor zaio gaur egungo trikitixa** instrumentua ere. Berak erantsi zizkion lehendik zegoen soinu txikiari bi botoi, eta, hala, eskuin eskuan 23 botoi izatera pasatu zen.

Elgetaren liburuaren **hitzaurrea Iker Goenagak** egin du. CDan **1960tik 1964ra Pepe Andoainek grabatutako hainbat pieza** entzun daitezke.



Elgeta, Mehagasko Mierdi Baserrian

ELGETAKO JAIALDIA

Hain justu, Elgeta jaio zela **ehun urte** bete dira aurren, eta, mendeurrena ospatzeko, **antzerkia eta trikitixa uztartzen** dituen jaialdia egin zen maiatzaren 20an Elgetako Espaloia Antzokian. Jende ugari bildu zen bertara, eta jaialdiaren formatu berriarekin oso gustura geratu zen jendea. Antzezleek, **Patxi Santamariak** eta **Inazio Tolosak**, tabernariaren eta bezeroaren arteko elkarriketa egiten dute, eta, hala, tartean, trikitilariak aurkezten dituzte: **Epelarre eta Zabale, Laja eta Landakanda, eta Tapia eta Leturia**. Tabernako elkarriketa horien bidez, Elgetaren biografiatik ateratako hainbat pasadizoren berri ematen dute. Pasadizoak **Koldo Izagirrerren** "Elgeta, sasiaren sustraiak" liburutik aukeratu dituzte. Idazleak berak lagundu die gidoia prestatzen.

TRIKITIXA ETA DANTZA

Trikitilari bikote guztiak dantza lotuko abestiak jo zituzten, eta tartean, Elgeta nola ezagutu zuten, nola irakasten zuen eta nolako persona zen kontatu zuten, besteren artean. Azken buruan, **Elgeta gehiago ezagutzeko** parada ematen du emankizunak, modu atsegin batean. Pieza hauek jotzen ari ziren bitartean, hiru dantzari bikotek dantzatu zuten. Bukieran, trikitilari guztiak batera dantza sueltoko piezak jo zituzten, eta antzokian bildutako jendea berehala hasi zen dantzan; izan ere, **giro beroa** nagusitu zen Elgetan. **Arrasate Telebistak grabatu** zuen jaialdia, eta aurrerago ikusi ahal izango dugu telebistan.

GIPUZKOAKO TRIKITIXA ESKOLEN ERROLDA

Trikitixa Elkartea **trikitixa eskolen errolda** egiten hasi da. Aurtengo helburua Gipuzkoako trikitixa irakasle guztiak biltzea da. Trikitixa irakasleei galdeketa bat egin zaie hainbat punturen inguruan: zein metodorekin irakasten duten, non ematen dituzten klaseak, trikitixa elkartearen ekintzen balorazioa... Era honetan, **ahalik eta informazio gehien jasotzen** ari dira.

Egitasmo honen helburua **datu-basea** osatzea da. Bidenabar, **irakasleekin harremanak** bultzatzea, Gipuzkoako trikitixa eskolen mugimendua ezagutzea eta trikitixa irakasteko metodologiari buruzko oharra jasotzea. Elkartea egiten dituen egitasmoen zabalkundearen ere lagunduko du harreman honek. Ildo honetan, elkartearen egitasmoei buruzko **balorazioa** eta irakasleen beharrak aintzat hartuko dira datozen plangintzetan. Hau da, errolda egin ondorengo, ondorio batzuk atera eta plazaratu egingo dira, eta, hala, hortik aurrera **datuzen urteetako helburuak finkatu** eta bideratzeari ekingo zaio.

TRIKITIXA ALARDEA DONOSTIAN

Donostian irailean ospatzen dira Euskal Jaiak, eta, aurten, bosgarren urtez, **trikitixaren alardea** izango da irailaren **10ean**, igandean. **Trikitilarien Bilketa** deitzen denak **18:00etan** izango du aurkezpena **Konstituzio Enparantzaren**, eta jarraian, hainbat talde **kalejiran** ibiliko dira, nola portuan, hala Parte Zaharrean. Ondoren, **19:00etan jaialdiari ekingo** zaio. Talde bakoitzak bina pieza joko ditu, eta bukaeran guztien artean joko dituzte beste bi abesti.

Hauexek dira Trikitilarien Bilketan parte hartuko duten talde gonbidatuak:

Auntxaren Trikitixa Eskola
Juan Tapiaren ikasleak
Lurdes Alkortaren ikasleak
Maidere Lasaren ikasleak
Maltzeta Trikitixa Eskola
Solano Trikitixa Eskola
Ama Lur Trikitixa Eskola
Oskar Estangaren ikasleak

Talde bakoitzean 12 bat lagun izango dira, beraz, guztira koadrila polita bilduko da Donostian, iraileko bigarren igandean. Herritik hirira, jarrai dezagun trikitixa kaletartzen, hedatzen, handi egiten.



etorriko dira berriak



Abdon Bascaran
Valenciaga
Aizte
(1927-2006)

Aizte, 1983an Elgoibarren egindako omenaldian

Abdon Bascaran **Aizte** pandero-jotzaile elgoibartarra zendu da berriki. Azkenaldian bere berri gehiegi entzun ez badugu ere, trikitixaren munduari lotuta bizi izan da. Hori dela medio, **1983. urtean omenaldia** jaso zuen Elgoibarren, beste hainbat trikitilarirekin batera. Tartean, Bergaretxe anaiak, Goikone, Galbu, Xanti Zabala eta Baskaran.

Bestalde, **1979ko Euskadiko Trikitixa Txapelketan** ere parte hartu zuen, eta, bere grabaziorik izatekotan, ordukoa dugu bat, finalurrekoetakoa. **Aiztek Kataolatzarekin** batera **jo zuen** orduan, eta gainerako trikitilari bikoteak, berriz, honako hauek izan ziren: Txoko eta Arrite, Laja eta Landakanda, Egurrola eta Epelde, Epelde eta Iturbide, eta Muxika aita-semeak. Gehienez Kataolatzarekin jotzen zuen Aizte. Goian bego.

Joxe Mari Urbietta
Egañazpi
(1920-2006)



Sakabi eta Egañazpi

Joxe Mari Urbietta **Egañazpi** pandero-jotzaile aizarnazarra (Zestoa) 85 urterekin zendu da. Egañazpi Faustino Azpiazu **Sakabi trikitilari zenarekin aritu zen 32 urtez**. Egia esan, trikitiari eman duen bikote ezagunenetakoa osatzen zuten, eta Euskal Herri osoan ibili ziren, erromerian.

Bere kabuz ikasitakoa zen, belarritz. Solfeoa zer zen jakin izan balu, gustura ikasiko zukeela onartu zuen noizbait. Baina ez. Egañazpi eskola zaharrekoa zen. Aizarnako Egañazpi baserrian sortua, gazterik hasi zen panderoarekin. Sakabik 60 urte beteta erretiratuko zela esana zuen askotan, eta hitza bete zuen. Artean Egañazpi ondo zegoen, eta panderoa jotzen jarraitu zuen. Lajak, Epeldek, Astiazaranek... trikitilari askok hots egiten omen zioten, eta haiekin aritu zen urte batzuetan. Duela urte batzuk hartu zuen erretiroa. Goian bego Egañazpi.

ZESUMA



KER GOENAGARI bere hirugarren diskoa kaleratzean jasotako hitzak:

• TRIKITIXAREN EGOERAZ

- "Nik ez dut trikitia arriskuan ikusten. Badago trikitia soinua eta panderoaren arteko lotura bakarrik dela uste duenik, baina ni ez nago ados. Oinarri tradizionalak erabiltzen ditut,

horiek ikasi ditudalako eta gustuko dudalako, baina ez nuke gustukoa ez dudan ezer egingo trikitia hori eginez salbatuko litzatekeela jakinda ere. Gaur egun trikitia ikasteko motibazioa ere ezberdina da". (Aizu!, 2006-V)

• TRADIZIOAZ, MOLDE BERRIEZ

- "Tradizioa galtzeko beldurrik ez da izan behar. Azken finean, egungo moldera, garai berrietara egokitu beharra dago. Trikitilariaren funtzio soziala aldatu egin da. (...) Trikitiarekin gauza asko egin daitezke". (Le Journal, 2006-VI-14)

- "Zortzi urterekin hasi nintzen trikitia ikasten, eta beti saiatu naiz zerbait berria egiten, betiere trikiti tradizionala oinarri hartuta. Bizi dudan garaian beste musika oinarri batzuk jasotzen ditut eta beste eragin batzuk dauzkat; beraz, sortzeko garaian niretzat oso zaila da orain dela 60 urteko pieza bat egitea. Horren eboluzioa egiten saiatzen naiz, modu naturalean betiere". (Berria, 2006-III-03)

• DISKOAZ

- "Nik tradizioetik jaso dut trikitia, baina niretzako oso zaila da tradizio hori imitatzea. Beti saiatzen naiz musika gaurkotuagoa egiten; jaio naizen unean jaiotzea egokitu zait, une hau bizitzea, eta munduan dagoen musika hau da. Hasieratik planteatu genuen sampler batzuk sartzea, kolore batzuk ematea, eta halaxe izan da". (Gara, 2006-III-03)

"Guk talde bezala funtzionatzen dugu, taldekide bakoitzak bere ekarria egiten du, baina azkenean zirkulu bat bezala osatzen da boston artean. Orduan, ondo dago kanpoko norbait etortzea eta zirkulu hori etetea. Alde horretatik laguntza ikaragarria izan da Angel Unzurenena". (Gara, 2006-III-03)

KALEJIRAN

• **Alaitz eta Mainerren kilometroetako kanta aurkeztu dute Oartzunen eta oartzuarrek** egin dute **Kilometroetako abestia**. Leloak dioten bezala, **Ingo yeu, ingo ñeu** aldarrikatzen du, "**baina euskaraz**". Musika **Alaitz Telletxeak** eta **Maidier Zabalegik** sortu dute, eta letra **Jon Martinek**. **Moldaketak**, berriz, **Xanet** eta **Anaitz Arozenak** egin dituzte, eta **Arkaitz Miner** oreretarrak ere **jo** du. Azkenik, **grabazio-lanetan**, **Gorka Irastorza** **Lezoti** aritu da. **Ekainaren 14an aurkeztu** zuten abestia, eta kilometroetako web orrian entzun daiteke. Gainera, sakelako telefonoko tonu bezala jartzeko aukera ere badago.

• **Beltranek** **Orhiko xoria** diskoa kaleratu du **Juan Mari Beltran** herri musikaren ikertzaile eta musikari donostiarrak **Orhiko xoria** izeneko bere bakarkako bigarren diskoa kaleratu du, diskoetxearen eskutik. Beltranek **lurrarekin eta tradizioarekin loturiko 16 abesti** bildu ditu bertan. Ohiko musikari taldeaz gain, **Jasone Camara** izan du lagun. Camarak akordeoi kromatikoa, trikitia eta biolontxeloia jo ditu.

• **Joseba Tapiak irailen kaleratuko du diskoa** Joseba Tapiak bakarkako **laugarren diskoa** grabatu du. Irailen kaleratuko du **Real politik** izenburupean. Gaur egungo eta lehengo idazleen letretan oinarritutako **14 kantuk** osatuko dute Tapiaren azken lana. Besteak beste, **Gabriel Arestiren**, **Bertolt Brechten** eta **Jacques Preverten** hitzak egokitu ditu.

• **Kepa Junkerak irailaren hasieran kaleratuko du Hiri** Kepa Junkeraren disko berriak badu argitalpen data: **irailaren 4an kaleratuko da Hiri**, bere **hamaikagarren lana**. **Jatorri askotariko musikari eta talde ugarik** hartu dute parte. Euskal Herrian ez ezik, Espainian, Frantzia, Erresuma Batuan, Herbehereetan, Suitzan, Italian eta Japonian banatuko da diskoa, eta **Lagun Aro aseguru etxearen babes** izango du. **Getxoko Nazioarteko Folk Jaialdi ospetsuan, aurkezpen-kontzertua** eskainiko du.

GALBAHEA

• **Agus Barandiaran, Korrontzi taldeko kidea:** "Normalizau egin da (trikitixaren egoera). Lehen, danak joaten ziran edo joaten ginan produktu bat egitera eta, azken batean, horregaitik etorri zan amaiera. Talde larregi egozan gauza bera egiten. (...) Orain, trikitixea musika-tresna bat gehiago da, gitarrea edota bateria dan legez. Bakotzak gura dauena egiteko erabili leike, folka, rocka edota erromeria egiteko". (Bizkaie!, 2006-IV-04, 156. zenbakia)

• **Xabier Berasaluze Leturia, pandero-jotzailea:** "Dantza taldeek, perfekzionismo barruan, dantza polit batzuk egin dituzte, baina gero horiek ez dute balio plazan dantzari arruntak egiteko. Halako batean kanpoko multinazionalek beren musika tabernetan sartu, eta 40 Principales eta beste hainbat gauzarekin musika tabernetan bakarrik entzutea bultzatu dute. (...) Jendea dantzan jartzeko beste formula batzuk bilatu behar dira". (Berria, 2006-V-05)

• **Juan Mari Beltran, musikaria:** "Tradizioak ez ditu arau zorrotzak ezartzen; tradizioa bizia da, besteak ohiturak dira. Tradizioa igortzea da. Nik zuri ematen dizut, eta zuk hartu eta zeure egiten duzu; horixe da finean transmititzea. Ezagutu ditudan aspaldiko txistulari, albokari eta txalapartari guztiak une oro esperimintatzen ari ziren, ez zeukaten ezer itxita". (Berria, 2006-V-29)